



GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN

DOKUMENTAZIO ITURRIEN KUDEAKETA


2020-2021 IKASTURTEA

Amaia Oficialdegui


2.A. Informazioaren ekoizpena eta kontsumoa. Ohiko formatuak eta eredu berriak.

Igorlea →

mezu kodifikatu → transmititu euskarri baten bidez → mezua dekodifikatu → mezua jaso



KANALA = EUSKARRIA
ERREFERENTEA



Hartzailea mezua bidaltzen badu, feedback sortzen du. Batzuetan zarata dago (fisikoki edo bestelako arazoren bat sortzen bada). Honetan bi gauza kontuan hartu behar dira: euskarria eta erreferentea (ezagupen kulturala) eta horren bueltan feedback.

KOMUNIKAZIOAREN ESKEMA

1. Ekoizlea - igorlea
2. Hartzailea
3. Kanala
4. Kodea
5. Mezua
6. Erreferentea

1. IGORLEA / EKOIZLEA

Honek mezua sortu eta bidali. Komunikabideak igorleak dira; eredu zaharrak, zaharberrituak eta berriak batera ematen ari dira momentu honetan.

- Enpresa eta talde handiak dira. Baita txikia izan ahal dira ere; lokalak, alternatiboak, espezializatuak..
- Prentsa, telebista eta Irratia. Interneten multimedia garatu da azken urteetan
- Profesionalak dira.
- Informazio kopuru handiak zabaltzen dituzte. Informazio kopuru izugarriak, aukera paregabeak eta arazo berriak sortzen ditu. Infoxikazioa = overload = too much info.
- Hedapena zentzu bakarrean; hau da, ezin diegu erantzun. Hartzaileek eragiteko aukera dute: (1) Informazioak eta iritziak eman, (2) Informazioak baloratu, (3) Argitaratuko dena erabaki...

Komunikabideak lehen igorleak ziren baina zahar berrituak eta berriak batera ematen ari dira momentu honetan. Igorleen artean dena nahasten ari da. Eta gero eta maiztasun handiz sortzen dira feedbackak. Gainera, jada ez dira medio handiak bakarrik kontsumitzen, baizik eta medio txikiek (lokalak, alternatiboak, espezializatuak) ere egiten baitaude.

Garapena → Prentsan, irrastian eta telebistan garapen handia gertatu da eta hirurak interneten multimedia bihurtu dira. Ez bakarrik egiten dutena, baizik eta multifuntzionalak bihurtu dira.

- Dokumentazioa oso gutxitan eskuragarri. Dokumentazioa gero eta eskuragarriagoa dago; lehendabizi, prentsakoa eta interneterako sortutakoa, eta poliki-poliki gainontzekoa (kostua, eskubideak...). Batik bat, komunikabide publikoetan.

Informazioaren ekoizleak igorle berriak:

- Enpresa
- Administrazioak: Informazio publikoaren eskurapena bermatzeko ahaleginak: informatzeko (open access), erabili eta zerbitzu berriak sortzeko (open data).
- Hezkuntza erakundeak → Goi mailako hezkuntzako erakundeak: Open access-en filosofia: diru publikoarekin finantzatu dena sarbide askean eskaini behar da: Aldizkako argitalpenak online free, Tesuak, Biltegi digitalak (errepositorioak), Ikerketa datuak.
- Herritarrak: Edonor izango da ekoizle eta igorle (web 2.0). Mugak: herrialde garatuak, IKTen alfabetizazioa, baliabideak.... Zertarako? Komunikatzeko, partekatzeko, eragiteko, ikasteko...

2. HARTZAILEA → mezua jaso

3. KANALA → euskarria, ze bideetatik

4. KODEA → nola kodifikatzen da mezua eta mezua ulertu ahal izateko

5. MEZUAK


- Asko eta askotarikoak, multimediak, irudiak, eskubideak kudeatzeko modeloen krisia, finkotasun eza daukate (lehen euskarri finkoa zen baina orain dena dira mezu digitalak, ezin dira ukitu. Baina mezuak jarraitzen dira gertatzen). Hala ere, eskubideak kudeatzeko modeloen krisia izan dute. Lehen finkotasunak egiten zuen dokumentua: informazioa euskarri batean. Gaurko produkzio digitalean, aldiz, informazioa jarria da, prozesu bat, bertsioak, egiletasuna...
 - Gai gara nahi / behar dugun informazio lortzeko? mezua ongi bidaltzeko?
 - Tresnak ezagutzen al dituzu infoxikazioa uxatzeko?
 - Pertsona multimedia izateko prest al zaude? Multifuntzionaltasuna eskatzen da gaur egungo lanetan.

6. ERREFERENTZIA

2. B. Komunikazioaren erreferentea (Bonus track)

Irudia + erreferentea = mezu osoa

- Erreferentea = testuingurua
- Kanala = euskarria
- Feedback = Berrelikadura



Komunikazioaren munduan, erreferentea ezagutu behar da, hartzaile eta batez ere igorle moduan. Horregatik garrantzitsua da zenbait erreferente izatea.

ARIKETA: Erreferente batzuen inguruan inbestigatu, informazioa aurkitu: Stefany Germanotta, Little Boxes, Pikara, Carlos Franganillo eta Zigor Aldama. + Carl Sagan eta Alejandriako liburutegiaren inguruko pelikula

2.C. PROZESU DOKUMENTALA

Informazioa eta dokumentazioa eskaintzeko dokumentazio- zerbitzuan egiten den lan bilduma da. Lan asko dira prozesu dokumentaletan lantzen direnak. Informazioa eskaintzen da helburu nagusia. Hori antolatzeko lau parte daude:

1. Sarrerako funtzioak: zerbitzuari interesatzen zaizkion dokumentuak zehaztea eta jasotzea: dokumentuak hautatzea, eskuratzea eta erregistratzea.
2. Tratamendurako funtzioak: Bi helburu daude: dokumentuak ordenatzea eta dokumentuak eta horien informazioa agertaraztea. Egiten diren lanak: deskribapen bibliografikoa, edukiaren analisisa (laburpena, sailkapena eta indexazioa) eta ordenamendua eta gordeketa
3. Irteerako funtzioak: Dokumentazio- zerbitzuek dituzten baliabideen ustiapena (esplotazioa) da. Erabiltzaileen eskakizuei erantzutea eta dokumentuak eta ekoizpen dokumentalak hedatzea.
4. Arreta funtzioak: Prozesu osoa kudeatzen eta planifikazioa bideratzen dutenak dira.

3.A. DOKUMENTAZIO-SISTEMAK

Informazioaren profesionalak: komunikatzaileak, kazetariak, dokumentalistak, liburuzainak, artxibozainak, baina baita izendapen berriak, adibidez: content curator.

Edukien arduraduna. ZER DA?

- Sareko edukirik onena bilatzen eta aukeratzen duen pertsona, gero entrepresatik komunikatzeko
- Etengabe:
 - Topatzen du
 - Bilatzen du
 - Antolatzen du
 - Partekatzen du → informazioa

Alde:

- + Contenido de “calidad”
- + Posibilidad de suscripción por ese mejor contenido
- + Filtrado crítico
- + Identifica lugares donde se produzcan conversaciones
- + Sus conocimientos y experiencia aportan valor al contenido

Kontra:

- + Necesario un Contexto Curator por cada tema
Context curator es una estrategia que consiste en el análisis, el rastreo y la recopilación de información interesante sobre un determinado tema, sector o ámbito.
- + Ya existen métodos propios de filtrado del contenido: recomendación de amigos, listado de Twitter...
- + Hay herramientas online disponibles que realizan este trabajo

EGITURAK.

1. Artxiboak
2. Bibliotekak
3. Dokumentazioa

1. ARTXIBOAK: fisikoak dira. Zaharrenak: Mesopotamian. Erakunde (instituzio, administrazio, empresa...) bati lotuak dira, eta erakunde horren jardueraren erregistroa gordetzea dute helburu. Dokumentu bakarrak izaten dira (ez argitaratuak)

Artxiboetan bi printzipio segitzen dira:

1. Jatorriaren arabera gordetzen dituzte dokumentuak, dagozkien espedienteetan. Sailkapen taulak irudikatzen du erakundearen egitura. Adibidez: Nafarroako udalen artxiboetako sailkapen taula.
2. Iraupen legala (eta, gero, beharbada, historikoa).

Artxiboak batzuetan horrela banatzen dira:

- Artxibo administratiboak
- Bitarteko artxiboak
- Artxibo historikoak: dokumentuek 50 urte baino gehiago.

Gaur egun, kalitate agiriak enpresetan eta administrazio elektronikoak dokumentuen kudeaketa profesionala eskatzen dute, sortzen diren momentutik eta, noski, formatu digitalean. Records management izenarekin ere ezagutzen da artxibo lana.

2. BIBLIOTEKAK

Oso antzinakoak dira (Mesopotamian, Egipton eta Grezian bazeuden horrelakoak). Izena grezieratik dator (liburu + tokia). Oinarrizko azpiegitura bilakatu dira herrialde garatuetan. Helburua: jakintza jasotzea, gordetzea, klasifikatzea edo ordenatzea eta transmititzea.

Bibliotekak, mota askotakoak izan daitezke: Nazionalak, Unibertsitatekoak, Espezializatuak, Publikoak, Digitalak, Hibridoak...

Biblioteka Nazionalak: Herrialde batek argitaratu duen osoa jasotzen du (liburuak, aldizkariak, diskoak, DVD-ak...), Legezko gordagailuaren bidez.

- Legezko gordailua → Kopia batzuk gordetzen dira biblioteka nazionalera joateko
- ISBN (Matrikula komertziala) → liburuaren formatua aldatzen bada ISBN aldatu. Liburuaren matrikula da, saldu ahal izateko beharrezkoa da.

Herrialde horri buruz (edota bere hizkuntzan) publikatzen dena jaso dezake. Dohaintzak jaso eta dokumentu historikoak erosten ditu. Edukiak bildu, gorde, kontserbatu eta eskuragai jartzen ditu. Biografia nazionala osatzen du. Aitzindaria da; aholkuak, arauak eta aginduak plazaratzen ditu.

Hala ere, Espainako Biblioteka Nazionalaz gain, Estatuko hainbat eta hainbat tokitan daude horrelakoak:

- Espainia (1711)
- Errioxa (1988)
- Madril (1989)
- Gaztela eta Leon (1989)
- Aragoi (1990)
- Andaluzia (1994)
- Extremadura (1995)
- Kantabria (1999)

.....

Aipagarria bere historia eta garrantziagatik Kataluniako Liburutegi Nazionala da, 1907an sortzen zuten, eta geroztik kultura kataluniaren motorra da.

- Biblioteka Nazionala Euskal Herrian: EAEn II/2007ko Legenaren bitartez sortu zuten, eta Koldo Mitxelena izango zela esaten zuten. Baina lege hori ez dute bete.
- Nafarroan, Nafarroako Liburutegia 2002an.

Bibliotekaren oinarrizko kontzeptuak:

1. Bilduma (dokumentu hautatuak)
 2. Antolakuntza (ordenamendua, katalogoa)
 3. Erabiltzaileak (zerbitzuak...)
- Zentro multimedia bilakatu dira.
 - Bilduma fisikoa eta birtuala dituzte:
 - Zerbitzu anitzak eskaintzen dituzte:
 - Ekimen kulturalak (idazleak, hitzaldiak, ipuinak, bookcrossing...)
 - Formazioa (ikastaroak...)
 - Azpiegiturak (ordenagailua, liburu elektronikoen irakurgailuak...)

Adb: Bilboko Azkuna Zentroaren Mediateka.

3. DOKUMENTAZIOA

Kontzeptua XX. mendearen hasieran sortu zen, ez da kontzeptu oso zaharra, ekoizpen zientifikoaren hazkundeari lotuta. Dokumentuak liburuaren kontzeptua gaitzen du.

Dokumentazio zerbitzuak:

- Gai espezializatuetan iaioak
- Erabiltzaile talde zehatzei begira daude zerbitzu hauek
- Hauen informazio beharrak asetzeko sortuak (laburpenak, indexazioa, datu-baseak...)

Dokumentazioa izenak: Dokumentazioa, Information Retrieval (Informazioa Berreskuratzea), Information Science, Informatika, Dokumentazio- eta informazio-zientziak...

3.B. DOKUMENTAZIO INFORMATIBOAREN OINARRIAK

Laburpena: aiaren kontzeptuak

1. Dokumentazioa diziplina gisa
2. Sorrera
3. Garapena eta izena
4. Definizioa eta zeregina
5. Dokumentazio garapena
6. Dokumentazio informatiboa
7. Dokumentua: definizioa eta sailkapenak
8. Dokumentazio zentroak

1. Dokumentazioa diziplina gisa, hiru ikuspegi:
 - Zientzia instrumentala eta laguntzailea.
 - Zientzia bat (informazioa berreskuratzeko prozesuak ikertzen ditu)
 - Informatzeko modu zehatz bat
2. Sorrera: data eta testuingurua
 - XX. mendearen hasieran
 - Dokumentu-ekoizpenaren hazkundera

Sorrera: protagonistak

Diziplina horren aita Paul Otlet (1868-1944) belgikarra da. Laguntzaile moduan, Henry La Fontaine (1853-1943). Hasieran, 1895an Nazioarteko Bibliografia Institutua (1938tik aurrera FID, Nazioarteko Dokumentazioaren Federazioa).

Sorrera: mugarriak

- Errepertorio Bibliografiko Unibertsala izatea zen helburua
- Dokumentua (argitalpen guztien mugak gaindituz)
- Nazioarteko lankidetzaren eta ez da bakarrik belgikako erro baten ideia, baizik eta nazioarteko elkarteak
- Informazio zientifikoaren kontsumoaren eta ekoizpenaren ikertzeko beharra
- Sailkapen Hamartar Unibertsala (SHU)

- 1934an “Traite de Documentation”. La biblioteca radiada y televisada da gaurko internet.

Bilduma egiteko edo errepertorioa egiteko → 10 kategoriatan sailkatu zituzten gordagailu zentrala.

Dewyren Hamartar Sistema moldatu zuten belgikarrek

- CDU → Clasificación Decimal Universal
- SHU → Sailkapen Hamartar Unibertsala
 1. Oinarriak
 2. Filosofiak
 3. Erlijio
 4. Gizarte Zientzia (Estadistika, Politika, Ekonomia...)
 5. Hutsik
 6. Matematika
 7. Zientzia aplikatuak
 8. Arte ederrak
 9. Hizkuntza
 10. Geografia

Alde handiak daude Dewyren Hamartar Sistema (DHS) zentroamerikan, liburutegiak ordenatzeko erabiltzen da eta Sailkapen Hamartar Unibertsalaren (SHU) artean, herrialde ingelesen gauza guztiak ordenatzeko eragitzen da.

Liburu bakoitzak etiketa bat dauka CDU sistemaren barruan kodigo bat osatzen dutenak hobeto ezagutzeko.

→ Dewyren Hamartar Sistema (DHS) eta Sailkapen Hamartar Unibertsalaren (SHU) batean unit besteetan hamartar.

3. Garapena eta izena

- 1920 dokumentazioa
- 1950 information Retrieval
- 1968 Information Science
- Sobiet Bat: informatika
- Alemanian: dokumentazio eta informazio-zientziak

4. Definizioa

Dokumentazioa → Diziplina zientifikoa, zeinek informazio eta dokumentazio zientifikoaren egitura aztertzen duen, baita haien legeak, teoria, historia, metodologia eta antolakuntza ere (FID: Nazioarteko Informazio eta Dokumentazioaren Federazioa. Izena: aldatu ziren. Bruselaren sortua, 1895ean, Outlet eta Fontaineren eskutik).

Dokumentazioaren zeregina:

- + Dokumentazioak dokumentuen informazioaren irudikatzea, gordetzea, berreskuratzea eta hedatzea ikertzen du.
- + Informazio-iturriak ustiatzeko sistemak eratzen eta garatzen ditu, ezagutza horiek erabiltzaile-talde baten edo gizarte osoaren esku jartzeko.

5. Dokumentazio garapena

Hainbat arlotan sakabanatuta dago:

- Garapen zientifikoa
- Garapen ekonomikoa, jardueraren sektore bat: erakunde zehatzen beharrak, informazioaren kudeaketan eraginkortasuna lortzea da helburua.
- Bestalde, espezialitate eta ikerketa-arlo ezberdinak
- Lanbidea
- Dokumentazio zerbitzuak
- Bibliotekak (irakurketa publikoak)
- Artxiboak

6. Dokumentazio informatiboa

- + Komunikazio zientzietan
- + Komunikazio enpresetan
- + Komunikabideetan

7. Dokumentua: definizioa eta sailkapenak

- Definizioa: euskarri iraunkorrean erantsita dagoen edozein mezu ikonikoa edo sinbolikoa helburu informatiboarekin erabilia, informazioa eta komunikazioa bertan hartzen dira, iraunkortasuna, eskurapen diakronikoa (beste egun batean ikusteko aukera) eta antolakuntza.
- Hainbat motatako euskarriak daude →
 - Paperezkoak

- Magnetikoak
- Optikoak (lente optikoen bidez deskodifikatzen dira eta horretarako laser izpi bat beharrezkoa da LASER: Light Amplified by Stimulated Emission of Radiation)
- Euskarri kimiko argiarekiko sentikorak
- Digitalak

- Mezuaren kodea hainbat motatakoak izan daitezke:
 - Grafikoak
 - Ikonografikoak
 - Entzunezkoak
 - Ikus-entzunezkoak
 - Hiru dimentsiokoak
 - Multimediaiak

- Informazioa tratatzeko sistemak
 - Analogikoak → Aldagaia jarraituak eta zenbaki erreali buruz proportzionalak
 - Digitalak → Aldagaiak multzo finituko karakterez adierazten direnean (kode binarioa, normalean) mezu horiek 0 eta 1 bihurtu.
Adibidez: tenperatura, denbora, soinua, distantzia...

8. Dokumentazio zentroak

Kronologia

- + XIX. mendean →
 - Egunkariak argitaratuko aleak gordetzen dituzte.
 - Kanpoko prentsari jarraitzen diote.
 - Heriotza-oharrak eta biografiak
 - Kazetaritza eta dokumentazio informatiboak elkarrekin garatzen dira.
 - Teknokiak garapen markatzen du.

- + 1930-1960
 - Dokumentazio zentroak gauzatzen hasten dira
 - Egunkariak batera: argazkiak, erreferentzia liburuak, biografiak...

- Egileen eta materien aurkibideak sortzen dira, informazioa berreskuratzen
 - Egunkari desberdinetako zatien artxiboak sortzen dira, gaiko edo pertsonaien arabera
- + 1970
- Bi arazo: kontserbazioa eta espazio eza: mikrofilmazioa
 - Teknika: jatorrizko dokumentuak mikrofitxak edo mikrofilmak
 - Dena den, berreskurapena ez da erraza. Ikerketa jarraitu behar du
- + 1980
- Datu-base bibliografikoak sortzen dira: artxiboak, ordenagailuetan gordetzen dira
 - Informatizazioari esker, bilaketak errazagoak
- + 1990
- Euskarri optikoak (CD-ROM) heltzen dira: testuak eta argazkiak gorde daitezke.
 - Dokumentuak digitalizatu daitezke
- + 1995
- Internet hedatzen da: datu-baseak eta informazio iturriak eskura: dena klik batean.
- + 2000
- Beraz internet....
- Lan egiteko modua aldatu du
 - Eragina komunikatzaile eta dokumentalistengan
 - Sarbide orokorra informazio berreskuratzen tresnak eta teknikak hobetu eta kontrolatu behar dira.
 - Prentsa digitalaren arintasunaz eta informatizazioaren gehiegikeriaz dokumentazio zerbitzuak gero eta inportanteagoak dira.

04. INTERNET

- 1.- Kontzeptua
- 2.- Ezaugarriak
- 3.- Internet ikusezina
- 4.- Tendentziak: Norantz?
- 5.- Etorkizuna: egunero eguneratuz
- 6.- Informazio Iturriak: Dokumentu digitalak: ezaugarriak eta formatuak: Zer?
- 7.- Informazio Iturriak: Dokumentu digitalen kokalekuak: Non?
- 8- Helbideak: URL
- 9.- Nabigatzaileak: explorer, firefox, safari...
- 10.- Bilatzaileak: Nola?

1. KONTZEPTUA

Gaur egun, Internet informazioaren plataforma nagusia bilakatu da, eta informazioa ekoiztu, zabaldu eta partekatzeko aukera ematen digu. Internet mundu osoan zabaldua dagoen sareen sare erraldoi bat da, TCP/IP protokoloak erabiliz, milioika ordenagailu elkar konektatzen dituen.

- TCP: Transfer Control Protocol (1973-74)
- IP: Internet Protocol (1983)

World Wide Web da Interneteko alde ezagunena, baina ez da bakarra, fitxategien transferentzia (FTP), posta elektronikoa (e-posta), elkarrizketak (txat) edo bat-bateko mezularitza ere baditugu.

2. EZAUGARRIAK

INFORMAZIO KOPURUAK

- KONTSULTATU:
<http://www.elmundo.es/elmundo/2013/07/30/navegante/1375199227.html>
2013 - 2020: informazio kopurua x 44
- Sarean informazio ugari dagoela, gauza jakina da. Izan ere, datuen hazkundera etengabea da. Gaur egun, informazio kopuru ikaragarriari informazio tsunamia edo infoxikazioa esaten zaio.
- KONTSULTATU: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Infoxikazio>

AUTOBIDEA

- Informazioaren autopista da eta hemen guneen ezaugarriak, partekatzeko moduak eta egileen moldeak...
- informazioaren hedakuntza eta bere ikusgarritasuna baldintzatzen dute.

IKUSGARRITASUNA

- Sareak bi alde ditu: agerikoa eta ikusezina.
- Internet ikusezina, sarean egon arren, ikusgarritasun ezagatik ezkutuan geratzen dena da.
- Bilaketa-tresnetako emaitzetan (Google-n) azaltzen ez dena, alegia.
- Bilaketa motorrek bildu ezin duten informazioak osatzen du sareko alde ezkutua.
- Zergatik gertatzen da hau? Gune horietan informazioa datuz osatutako tauletan egituratzen da, eta galdera (query) bidez kaleratzen da, formularioetan bilaketa zehatzak eginez.

Beraz, interesgarria suertatu daitekeen hainbat informazio ez dugu jasoko zuzenean: datu-baseena, liburutegiko katalogoena, artxiboena, edukia kontsultatzeko bilatzaile propioa behar duten aldizkari elektronikoena eta pasahitza behar duten web guneena.

Eta gauza gehiago: <http://bit.ly/1Fy4EZy>

3. INTERNET IKUSEZINA

AGERIKO INTERNET eta INTERNET IKUSEZINA

- Datu-baseak
- Liburutegietako katalogoak
- Artxiboak
- Pasahitza behar duten web guneak...

Interneten informazio asko dagoen arren, guztia ez dago gure esku eta klik soil batekin ikusteko moduan. Google da informazioa eskuratzeko erreminta nagusia eta sareko hizkuntza ingelesa da.

4. NORANTZ?

- Infoxikazioa: Hartzen dugun informazio kopurua hainbestekoa da, etengabeko datu jariora itogarria suertatu daitekeela. Informazio larregik intoxikatu egiten gaitu, infoxikazioa sortuz (gehiegizko informazioaren intoxikazioa.)

- Analfabetismo teknologikoa: Teknologien sorrera eta hedapena azkarra izanda, euren erabilerraztasunak lagunduta ondo gizarteratu da, hala ere, guztiok ez gara teknologia berriak ulertu eta modu eraginkorrean erabiltzeko gai.
- Eten digitala: Erabiltzaile eta erabiltzaile ez direnen arteko tartea edo hutsunea eten digitala kontsideratzen da.
 - Adinaren arabera: 1990 urtetik aurrera jaiotakoei natibo digital izena ematen zaie; berez, teknologiekiko trebetasun berezia esleitzen zaie. Nagusiagoak direnak ez dute habilezirik aurkezten, orok.
- Pasibotasuna: teknologiek ino hituta dauden erabiltzaileen artean partaide pasiboak nagusi dira (lurker-ak*). Hau da, teknologiak erabiltzen dituzte informazioa eskuratzeko, aldiz ez dute informazio-edukirik sortzen.
- Itzal digitala: ez gara informazio sortzaileak eta, gainera, sarean guri buruz dauden gehienak ez ditugu gu geuk sortu. Artxiboetan, zerrendetan, buletin ofizialetan, web nabigazio historietan, posta bidalketetan gordeta daude gure datuak.
Guk horietako heren bat sortzen ditugu, beste biak gure kontrolpetik kanpo dagoz. Gure itzalak dira, itzal digitala. Irudikatzen gaituzte, baina ez gara gu.
- Pazientzia gutxiko nabigazioa: Ikerketen arabera, gehien jota 10 segundo ematen ditugu web-orri baten informazioa bilatzen eta Googleko erabiltzaileen %3a pasatzen da soilik bilaketa emaitzetako bigarren orrialdera. Informazio zuzena eta zehatza aurkitu nahi dugu begirada bakar bat emanaz.

5. ETORKIZUNA: EGUNERO EGUNERATUZ

6. INFORMAZIO ITURRIAK.

DOKUMENTU DIGITALAK: EZAUGARRIAK ETA FORMATUAK: ZER?

Dokumentu digitalak aplikazio informatikoen bidez formatu digitalean sortutakoak dira. Digitalizatutako dokumentuak eskaner edo antzeko erremintak erabiliz: eskutitzak, txostenak, liburuak eta abar. Emaitza irudi edota testu bat izan daiteke (OCR-ak).

DOKUMENTU DIGITALAK:

- Elektronikoak dira: sistema binario baten kodifikatuak daude
- Prozesagarriak
- Grabagarriak
- Berrerabilgarriak
- Esportagarriak
- Eguneragarriak
- Berreskuragarriak
- Bikoiztu daitezke

FORMATUAK

- Testu dokumentuak: esaterako word dokumentuak (.doc, .docx, .odt, .txt, .rtf hedapenak dituztenak.)
- Bistaratze dokumentuak: ikusteko edo inprimatzeko artxiboak, esaterako .pdf (Portable Document Format), edo .ps (PostScript) [Acrobat reader / Ghost View]
- Inkrustatuak (kapsulatuak): formatu desberdinetako artxiboak gordetzen dituzten fitxategiak (OpenDoc apple, OLE microsoft).

A) Irudi dokumentuak: artxibo grafikoak, esaterako argazkiak.

(.gif, .jpg, .jpeg, .png, .tiff, .psd, .bmp...)

B) Audio dokumentuak: soinuak artxiboak, esaterako mp3ko artxiboak

(besteak: .cda, .wav, .ogg, .flac, .wma...)

C) Bideo dokumentuak: mugimenduan dagoen irudizko dokumentuak

(.avi, .wmv, .mpg, .mov, .mp4, .xvid, .divx, .mkv, .flv)

D) Multimediaiak: irudi, soinu eta testu fitxategiak elkartzen dituzten artxiboak.

(flash, java)

Egituratuak: programazio lengoaietan garatutako dokumentuak (.html, .xml, .xhtml, .css). Dokumentu digitalen ezaugarri nagusienetakoa hauxe da, egituratuta daudela eta adierazpen ezagunena da hipertestua lantzen dutela.

Hipertestua testu mota bat da. Honek erabiltzailea bideratzen du aurrekoarekin zerikusi duen beste testu batera kanpo loturen bitartez (hiperlotura).


7. INFORMAZIO ITURRIAK: DOKUMENTU DIGITALEN BILTEGIA: NON?

- Liburutegi digitalak: Zerbitzari batean kokatzen dira dokumentu digitalak, kontsulta publikoa ahalbidetzeko asmoz. Sortzez digitalak diren dokumentuak (ad, liburu elektronikoak) edota digitalizatutakoak.
- Repositorioak: Hemen egileek biltegiratzen dituzte euren dokumentu digitalak, kontserbazioa eta kontsulta bermatzeko asmoz.
 - Bertikalak (gai bakar baten ingurukoak), adib. E-LIS
 - Horizontalak (gai asko), adib. ADDI EHU-koa edo Recoleta
- Datu-baseak: Datu-baseak beren artean zerikusia duten datuen bilduma da, ondoren eskuratu ahal izateko gordetzen dena. Esaterako, Inguma datu-basea, Eustat edo Zer aldizkaria.
- Web guneak: Interneten http protokoloaren bitartez eskuragarri dagoen fitxategi eta web orrialde bilduma bat da. Orrialde sorta honek gai bat garatzea, zerbitzu batzuk ematea edota orrialdearen inguruko informazioa eskaintzea ditu helburu.
- Blogak: istorio edo artikulua argitaratzen diren Interneteko web gune bat da. Egileak (blogaria) mezuak egunakari edo bitakora moduan idazten ditu eta kronologikoki argitaratzen ditu.

8. HELBIDEAK: URL (UNIFORM RESOURCE LOCATOR)

Sareko baliabideen helbide elektronikoa identifikatu eta idazteko sistema bat erabiltzen da, URL, Uniform Resource Locator-a. URL batek lau zati izaten ditu:

- Interneteko zerbitzua adierazten dituen hizkiak. Hau da, protokoloa: http, ftp, telnet
- Dokumentua ostatuta dagoen zerbitzaria edo domeinuaren izena. Adibidez, www.dk.com
- Direktorioa edo artxiboaren izena
- Dokumentuaren hedapena (formatua: .doc, .pdf, .jpeg)



Milaka gunez osatuta dagoen sarean, behar ditugun datuak eskuratzeko bi tresna erabiliko ditugu: Nabigatzaileak eta bilatzaileak.

9. NABIGATZAILEAK

Saretik hipertextu bidezko dokumentuak eskuratzeko ahalbidetzen duen aplikazioa da. Web-nabigatzaileak Interneten sartzeko bide praktikoa, erraz eta erabilena da. Gaur egun hainbat ditugu: Explorer, Firefox, Opera, Safari, Chrome, Edge...

More info: <https://bit.ly/2VeOGJp>

10. BILATZAILEA

Web automatikoki aztertzen duen sistema da, honako prozedura jarraituz: web orri desberdinen kodea edo helbide elektroikoa batu eta erabiltzaileak kontsultatu dezaken datu-base baten barneratzen du. Beraz, konputagailu sistemetan datuak bilatzeko garatutako informazioa eskuratzeko sistema da.

Bilatzaileak ez du uneoro Internet miatzen. Robotek noizbehinka zeharkatzen dute sarea informazioa biltzeko. Galdera egiten dugunean, nabigatzaileak lehendabizi begiratuko du ea ezer gorderik dagoen bere katxe memorian (cache), eta, baldin badago, hor dagoen bertsioa bistaratuko du, bizkorragoa delako zerbitzaritik ekartzea baino.

BILATZAILEAK: GOOGLE = the number One!

- 1997, Standfordeko unib ertsitatean: Larry Page eta Sergey Brin.
- Ez bakarrik bilatzailea: eskaintza anitza. 149 hizkuntza.
- 2011 → 32.000 langile / 2017 → 80.000 / 2019 → 14.000
- 70 bulego / 40 herritan
- Erabiltzaileak: 2018 + 4.500 milioi / 2006an: 500 milioi
- Portzentaia (share): %92,6 (2019), %75 (2017), %96 (2011), 2008an %91

BESTEAK: ask, yahoo search, bing, lycos, baidu...

Bilatzaileen funtzionamendua honakoa da:

1. Robot bezala ezagutzen diren programak (armiarma edo crawler) sarean dauden web orriak miatzen ditu. Azterketa lanaren oinarria da web guneen helbide elektroniko edo hiperloturak identifikatzea.

2. Ostean, programa indexatzaileak (helbide elektronikoak lotzen duen programa) errobotak bilatu duen informazioa aztertu (metaetiketak, loturak eta iturburua) eta deszifratzen ditu: web gunearen gaia, izenburua, ezaugarriak eta abar.
3. Aurreko informazioa datu-base erraldoi baten barneratzen da.
4. Erabiltzaileak galdera bat egiten du bilatzailearen bilaketa formularioan (bilaketa kutxatilan).
5. Emaizten zerrenda azaltzen da hurrenkera berezi baten: garrantzi handiagoko emaitzak lehen postuetan azaltzen dira.
Hurrenkera, bilatzaile bakoitzak inplementatzen duen algoritmoaren arabera egiten da. Bilatzaileek baloreak ematen dizkiete Interneteko guneei, zenbat eta balore hobea, gorago azalduko dira emaitzetan. Hau da, posizionamendu hobea izango dute web guneek eta lehenengo postuetan azalduko dira emaitzen zerrendan.

GOOGLE DENBORAPASA

- bilatu (kakotxik gabe): do a barrel roll
 - bilatu: zerg rush
 - bilatu: google pac-man
 - bilatu: "atari breakout" irudietan
 - bilatu "isla media luna, antartida" google maps-en eta sartu bide urdinetan...
 - bilatu google gravity mr. doob.
 - klikatu "baietz lehenengoan" botoian ezer idatzi gabe. Zer ateratzen da?
- + Info: Google Easter Eggs

05. BILATZAILEAK

BILATZAILEA (edota bilaketa motorrak)

Internet automatikoki aztertzen duen sistema da. Webguneen helbideak batzen ditu datu-base batean. Datuak bilatzeko aukera ematen du datu-basea kontsultatuz.

<http://www.thesearchenginelist.com/>

http://www.instaladoresonline.com/buscadores_directorio.html

Funtzionamendua

- Robotak sarea arakatzen du.
- Programa indexatzaileak lortutako informazioa aztertu eta deszifratzen du.
- Informazioa datu-base erraldoi batean sartzen da.
- Galderak egiteko sistema dugu (formularioa) (QUERY: galderak egitea)
- Emaitzen zerrenda, hurrenkera algoritmo batek erabakita (emaitzak antolatutak).

Robotek noizbehinka miatuko dute sarea (ez uneoro). Informazioa eskatzen dugunean lehendabizi katxean (memorian) gordetako kopua begiratuko du, erantzuna oso azkarra izaten ahalbidetuz.

Bilatzaile mota:

1. Orokorrak
2. Espezifikoak
3. Metabilatzaileak (gero eta gutxiago daude, jatorrizko bilatzaileek baimena ematen ez dutelako haien datuetan begiratzeko).

1. Bilatzaile orokorrak

Webguneak eta informazioa bilatzeko eguneroko tresnak. %15ak bakarrik ahal izango dugu eskuratu (ageriko Internetan). Erabilenak: Google, Bing, Ask.com, Yahoo!

2. Bilatzaile espezifikoak

Geografikoki mugatuak dira. Enoresarako zuzendutak. Osasuna, aldisteak, blogak, sare sozialak, pertsonak, mapak, galdera-erantzunak, prezioak, hezkuntza, itzulpenak, musika...

3. Metabilatzaileak

Ez daukate datu-base propiorik, bilatzaile anitzetara bideratzen dituzte bilaketak.
Adibidez: Metacrawler, Ixquick Clusty, Excite, HotBot...

Larry Pagek eta Sergey Brinek 1998an sortu zuten Google, Standfordeko Unibertsitatean.
Arrakastaren arrazoiak: sinpletasuna, tamaina eta emaitzen ordenamendu eraginkorra.

PAGERANK

Ordenamendua egiteko erabiltzen den algoritmoa da: sekretua da eta sarritan aldatua. Hainbat irizpide:

- Ikusgaitasuna: hobetzen dituzte esteka asko asotzen dituzten webguneak.
- Webgunea eraberritzea...
- Zigortzen dituzten praktika desagokiak.

Azken urteetan emaitzak erabiltzaile bakoitzari egokituak (aurreko kontsultak...)

Google bat baino gehiago dago. Adb: www.google.com / www.google.es / www.google.fr / www.google.co.uk / www.google.com.mx (mexikon)... Ispiluak zerbitzari ezberdinetan.

Bilatzaile ardatza bada ere, beste zerbitzu eta trana arrakastatsu batzuk ere sortu ditu: google news, google books, google academic, google gmail, google docs, google play, google calendar, google groups, google tranlator, blogger....

Bilaketak planifikatu

- Zer nahi dugu: testuak, irudiak, iritziak, albisteak, gidaliburuak, webguneak, artikulua...
- Hizkuntza, data, formatua...
- Hitz-gakoak aukeratu: bat, batzuk, zehaztu...

Nola bilatu?

- Berdin da letra larria edota xehea idaztea.
- Azentu-markak eta dieresiak ez ditu kontuan hartzen.
- Bilaketak zehazteko hainbat sinbolo ditugu eta baita bilaketa aurreratua pantaila ere.
- Esaldia edota hitzen ordena zehatza: “ “

- Funtzio logikoak (Bolearrak): AND (edo ezer ez), OR (EDO), -(EZ)
- () AND eta OR konbinatzeko
- Gehi ikurra +: de, la, con, por... eta halakoak bilatzeko.
- Tituluan: intitle:
- Helbidean: inurl:
- Webgune zehatz batean: site:
- Formatu zehatza: filetype:

INFORMAZIOAREN BERRESKURAPENA (Information Retrieval)

Bibliografia. Eskuliburua:

Agirre, Eneko; Alegria, Iñaki. “Tresna linguistikoak informazioa atzitzeko”. Agirreazaldegia, Teresa (ed.); Camacho, Idoia (ed.). Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan. Leioa: UPV/EHU, 2009. 101-112 or. <http://hdl.handle.net/10760/15785>

1. Informazio berreskuratzeko teoria

Bilaketarako profila Bilaketarako eredua

Konparazio sistematikoa

Eskaera (query) → Dokumentuak edota hauen errepresentazioak

2. Bilaketa prestatzeko

- Kontzeptuak identifikatu
- Kontzeptu horiek garatu (sinonimoak, hitz zehatzagoak...).
- Termino guztiak erlazionatu (Boole-ren funtzioak erabiliz).

3. Emaitzaren balorazioa

*** Egokitasuna, kontzeptu subjektiboa da.

1. Doitasuna (zehaztasuna): errekuiperatutako dokumentuen esanguratasuna (zarata dokumentalik gabe).

Doitasuna handitzeko: bilaketa findu edota emaitzaren ordena egokia lortu.
Zarata dokumentala: informazioa bilatzerakoan dokumentu egokiak eta desegokiak jasotzea da. Terminoen polisemiaren edota konbinaketa faltsuen ondorioa da.

2. Osotasuna, estaldura (recall): zeuden dokumentu esanguratsuen artean zenbat itzuli diren (isiltasun dokumentalik gabe).

Estaldura zabaltzeko semantika erabili: sinonimoak, hitz zehatzagoak...

Isiltasun dokumentala:

- informazio bilatzerakoan egokiak diren dokumentu guztiak ez lortzeari deitzen zaio.
- Indexazioan erabilitako terminoak bilaketan ez erabiltzeagatik sortU.

4. Tresna linguistikoak bilaketak hobetzeko

- Morfologia: hitza-lema (hitz gakoa) da bilaketaren oinarria, adibidez ELEBILA bilatzaile euskalduna. Deklinabidea hartzen zuen kontuan.
- Sintaxia: izen sintagmak bilatzen dituzte, dokumentuak multzokatzeko karpina desberdinetan.
- Semantika: ontologiak erabiltzen dituzte. Adibidez: “baso” (anbiguitasuna kentzeko), “jatetxe” (baina baita, sagardotegi, erretegi...).

Bilaketak hobetzeko gaur egungo ikerketak

- Bilaketa eleanitzak; CLIR (Cross Lingual Information Retrieval). <https://goo.gl/yNPVIN>
- Erantzunak lortu, eta ez dokumentuak: QA (Question answering). --> Nork, non, zergatik... (Ontologiak) <https://goo.gl/10x12L>
- Bilaketa multimodala (dokumentu desberdinak, ez bakarrik testuak: audio, argazkiak, bideoak). <https://goo.gl/f8gBLQ>

6. DATU-BASEAK

1. DEFINIZIOA: Datu-base bat datu-bilduma da, programa desberdinekin erabil daitekeena, ordenagailuan irakur daiteken euskarri batean grabatua, eta erregistro deitzen diren unitate logikoetan artikulatua.

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Oracle>

<http://eu.wikipedia.org/wiki/MySQL>

https://es.wikipedia.org/wiki/Microsoft_SQL_Server

Datu-base barik ez dago informaziorik.

2. DATU-BASEEN KUDEASISTEMAK:

- a) Erlazionalak: datu-egiturak taulak dira, hau da, datu bakoitza ilara batean eta zutabe batean jarriko da. http://eu.wikipedia.org/wiki/Datu-base_erlazional
- b) Dokumentalak: datuak gutxi egituraturik daude, eremu askoren luzera eta edukiak ezin da aldeztatik jakin eta arazo linguistikoei aurre egin behar izaten diete.

3. DATU-BASEEN KUDEASISTEMAK

- a) Erreferentzien datu-baseak
 - Datu-base bibliografikoak
 - Direktorioak
 - Katalogoak: objektuak deskribaten dituztenak
- b) Datu-base iturriak
 - Zenbakizko datu-baseak
 - Testu osoko datu-baseak
 - Irudien datu-baseak
 - Multimedia datu-baseak
- c) Beste irizpide batzuk
 - Eskuragarritasuna: publikoak edo pribatuak
 - Banaketa: lokala, linean, editatua...
 - Ekoizlea: instituzionalak edo komertzialak
 - Arlo tematikoa: ekonomiakoak, kirolekoak, zuzenbidekoak, musikakoak...

4. DATU-BASEEN EGITURA

- a) Eskema: eremuak definitu (izena, datu-mota) eta normalizatu
- b) Datuak: fitxa bakoitza: erregistro bat.
 - Izenburua: Dokumentazioa eta eduki digitalen kudeaketa = Documentación y gestión de los contenidos digitales / Teresa Agirreazaldegí Berriozabal (koord./coord.)
 - Argitalpena Universidad del País Vasco, Leioa : D.L.2010.
 - Deskribapena: 222 p.
 - Oharra: Ponencias de las II Jornadas sobre documentación y gestión de los contenidos digitales organizadas por el Departamento de Periodismo de la UPV en Leioa el 29 y 30 de abril de 2009.
 - Hizkuntza: Textos en euskara y español
 - Gaia: Documentación / Gestión de la información / Información electrónica.
 - Beste egile bat: Agirreazaldegí, Teresa, coor.
 - Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Departamento de Periodismo, otros.
 - ISBN: 9788498604863

DATU-BASE BIBLIOGRAFIKOAK

<https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka>

<http://catalogo.bne.es>

<http://www.kmliburutegia.net/>

Google Directory: 2011 itxi zuten.

<http://dmoz-odp.org/World/Espa%C3%B1ol/>

7.A. INTERNET 2.0

Web 2.0: Interneten bigarren generazioa da. Erabiltzaileen partehartzean eta informazio trukaketa oinarritzen diren Interneteko Web-zerbitzuak (O'Reilly Media, 2004ko urrian).

Zer dago barruan?

- Sare sozialak (facebook, instagram...)
- Blogosfera (blogger, wordpress, twitter...)
- Internautek sorturiko web guneak (wix...)
- Etiketazio kolektiboa (folksonomia)
- Internautek bultzatutako berriak (digg, meneame...)
- Egunero berritzen da...

Teknologia: konplexua, anitza eta etengabeko eboluziokoa.

Definizio osoa: "Datu base batean oinarritzen diren Interneteko zerbitzu eta tresnetaz ari gara, berauk zerbitzuaren erabiltzaileengatik aldatua izan daitekelarik, bai bere edukien aldetik (aurretik dagoen informazioari informazioa gehituz, aldatuz edo ezabatuz edo metadatuak erlazionatuz), aurkezteko eran edo eduki eta moduan aldi batera."

(Xavier Ribes, UAB, 2007)

Ezaugarriak:

- Webguneak ez du gune itxi baten jarrera izan behar: informazioa gehitu edo kentzeko erraza izan behar da.
- Erabiltzaileek beraien informazioa kudeatzeko gaitasuna izan beharko lukete.
- Soilik Webean oinarriturik: arrakasta gehien duten Web 2.0 guneak bere osotasunean nabigatzaile batetik kudeatzeko aukera izan behar dute.

Edukiaren berdifusioa:

- Oso garrantzitsua.
- Protokoloak: RSS, RDF, Atom (XML, oinarrian); FOAF eta XFN (sare sozialetarako).
- Hauen bidez, informazioa gunean bertan elkartrukutzen da
- Info gehiago: Microformats

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Mikroformatu>

Nazioarteko Internet 2.0ko guneak: Blogger, Bloglines, Google reader, Digg, Facebook, Flickr, Fotolog.com, Freevlog → bideoblog, Google, Platial.com → (2004 - 2010), Slashdot news about tech, TeacherTube.com, Tuenti, Twitter, Wikipedia, Wordpress, YouTube...

Bilatu zertarako balio duten...

Euskarazko Internet 2.0ko guneak:

- Blogak.eus, mundua.com, blogari.net
- Zabaldu.com, aupatu.com
- Argazkiak.org, GureGipuzkoa.eus
- nirudia.com/eu
- elebila.eu
- Tagzania (euskara)
- Sustatu.eus, ZuZeu.eus
- Edivlog.org ([//ikasvlogak.blogspot.com](http://ikasvlogak.blogspot.com))
- Zugaz.com
- Zutagu.net
- Wikipedia (euskaraz ere) <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>
- Wordpress (euskaraz ere) <https://eu.wordpress.org/>

7. B. IDENTITATE DIGITALA

Zer da identitate digitala?

- Sarean egiten dugunak gure identitatea sortzen du
- Hezkuntzari lotuta, kultura digitala lantzeko asmoz
- Sarean: gero eta datu pertsonal gehiago
- Askotan internauta → babesik gabe
- Ikasi behar dugu geure identitatea eratzen
- Millenials = Google generation (1990+): mutilanak, informazioa sortu + jaso
- Ni birtuala: kultura kontsumoa + komunikazio aplikazioak + sare sozialak

2- NOLA KUDEATU. Doaneko tresnak:

- a) Blog: blogger, wordpress
- b) Microblog: twitter
- c) Berri atariak eta web guneak
- d) Sare Sozialak: facebook, instagram, linkedin...
- e) Testuak, argazkiak, bideoak: Google Docs, (Picasa) Google Dotos, Flickr, Youtube, Wimeo, Dailynotion, Dalealplay...
- f) Posta elektronikoa: gure mezuek arrastoa uzten dute.

3- EZAUGARRIAK

- Ikusgarritasuna
- Erreputazioa
- Pribatutasuna

4- INFORMAZIO-TREBETASUNAK ETA DIGITALAK

(Maria Andersen: 60 trebetasun) → <http://bit.ly/2ntdwwm>

- a) Sare sozialak desberdinu eta era egokian erabili (Facebook, Instagram, LinkedIn)
- b) Sareko materialak nola erabili jakitea
- c) Aurkitu eta egokitu sare sozialen pribatutasunaren konfigurazioa

5. NOLA KUDEATU IDENTITATE DIGITALA? Kontutan hartzeko:

- a) Gure errepresentazio birtuala da.
- b) Ez gaude behartuta, baina beste batek gure lekua (profila) har dezake.
- c) Interneten argitaratzen dena, betirako geratzen da sarean.
- d) Identitatea sortzeak teknologia ulertu eta horretan parte hartzea eskatzen du.
- e) Hobeto identitate desberdinak garatzea (bizitzan bezala).
- f) Informazio etikoa zabaldu, sarearen konfidantza indartzeko.

KONTUZ! (Definizioak bilatu):

- Hacker: Informatika-ezagutza handia duen pertsona, sistema informatikoetan segurtasun-akatsak hautematen dituena.
- Cracker: Informatikako ezagutza handiak dituen pertsona, kanpoko sistema informatikoetara legez kanpo sartu eta horiek manipulatzeko dituenak.
- Phising: Internet bidez erabiltzaileen datu pribatuak lortzea helburu duen iruzurra, batez ere kontu edo banku-datuetara sartzeko.

7- GOMENDIOAK

- a) Kultura digitalean parte hartzeko metodo eta borondate baikorra erakutsi.
- b) Ikusgarritasuna eta erreputazioa.
- c) Ikusgarritasuna eta erreputazioa irabazteko, aukeratu zure gustuko gaia, non zure iritziak kontutan hartuko diren.
- d) Datu pertsonalak ematea sahiestu; egitekotan, gune seguruetan egin bakarrik eta ezagutzen dituzun pertsonekin.

“Es una extensión de nuestro yo formada con medios tecnológicos y cualquier dato electrónico que nos haga referencia”, identitate digitalaren definizio posiblea.

08. INFORMAZIOAREN ARKITEKTURA (IA)

Definizioa: diziplina edo zientzia: Informazio-espazioetan informazioaren ikasketa, analisia, antolaketa eta egitura lantzeko.

Interneten. Information Architecture Institute-aren arabera:

Informazio partekatuaren diseinu estrukturala +
Zientzia web gune, intranet, online komunitateak antolatzeko eta edukiak errotulatzeko+
Softwarea erabilgarritasuna eta kokagarritasuna sustatzeko = interneten aurkitua izatearen
ezaugarriak+

Diseinua eta arkitekturaren oinarriak sare digitalean erabiltzeko

HELBURUA hitz gutxitan: informazioaren ulermena eta bereganatze prozesua erraztea.

HISTORIA:

- Informatikan: 1959an, IBM-en
- Informazio-Zientzietan: 1970ean, XEROX-en
- Richard Saul Wurman arkitektoa: 1976an (hasieran, hirietako diseinuari begira: hiria planifikatu, hiritarrak ondo orientatu eta gustura ibili)
- Wurman (1996): "Information Architects"
- Louis Rosenfeld & Peter Morville (1998): "Information Architecture for the World Wide Web" (aka The Polar Bear Book)

Wurman: ZER DA IA?

Informazioaren antolaketaren ikasketa:

- internautak ezagupena lortzeko bere nabigazio bidea aurki dezan
- internautak informazio uler dezan

"Understanding is power"

Lou Rosenfeld eta Peter Morville:

- Artea eta zientzia: web guneak eta intranetak egituratzeko eta klasifikatzeko.
- Helburua: internautak lagundu informazioa aurki eta erabil dezaten

"Easy and useful"

IA-ren HIRU ATALAK:

1. TESTUINGURUA: Negozioaren helburuak, politikak, kultura, teknologia, aurrekontua, giza-baliabideak eta murrizketak
2. EDUKIAK: Dokumentuak, data motak, edukien objektuak, metadata, bolumena, dagoen egitura
3. ERABILTZAILEAK: Entzuleria, lanak, beharrak, informazioaren bilaketaren portaera, eskarmentua, hitzak

Zein da informazioaren arkitekto baten lana:

- Informazio erraldoi hori prozesatu eta dosifikatu: argitu, ulergarria egin.
- Egiaztatu eta garatu informazioaren prozesuak eta diseinua: info-a berreskuratzeko erraztasuna euskarri guztietan.
- Informazioaren sistemak antolatu, egituratu, sistematizatu, etiketatu (errotulatu), zabaldu eta diseinatu: erabiltzailea gustura, berreskurapena ximplea, eraginkorra eta emankorra.

Laburbilduz: <http://www.nosolousabilidad.com/articulos/ai.htm>

PROZESUA:

Teknika batzuk elkartzen dira. Prozesua = interaktibo eta transbersala.

Zer definitu behar da:

- Gunearen helburua
- Nori zuzentzen zaio eta entzuleriaren ikerketa
- Konpetentzia definitu eta aztertu
- Interakzioaren diseinua
- Nabigazioaren diseinua + antolaketaren eskemak + edukien egitura (nola zatitu)
- Edukien etiketazioa, informazioa lortzeko → CARD SORTING
- Edukien planifikazioa, kudeaketa eta garapena → CARD SORTING
- Bilaketaren erraztasuna eta bilaketaren interfazaren diseinua
- Erabilgarritasuna

- Atzigarritasuna = eskuragarritasuna (sartzeko edo atzitzeko erraztasuna)
- Emaitzen feedback-a eta birmoldatzeko prozesuak (ingenieritza)

Prozesuaren atal garrantzitsuena:

CARD SORTING = Txartelak ordenatuz. <http://bit.ly/2xzGh18>

Beraz, laburtuz: Web gune bateko IAn zer dago?

- antolaketaren sistemak
- edukien egiturak
- edukien errotulazioa = etiketazioa
- guneko informazioa
- berreskuratzeko / nabigatzeko sistemak

Informazioaren Arkitektoa izateko, momentuz, karrera ez dago, baina horretan aritzen direnak disziplina hauetatik etor daitezke: Dokumentazio Zientziak, Kazetaritza, Psikologia, Konputazioa, Informatika...

INFO + (eduki osagarriak):

- Jesus Bustamante: Alren garapena: <http://bit.ly/1IaMuxN>
- Card sorting: <http://bit.ly/1iyxAGT> eta <http://bit.ly/1mf9F2c>
- Mapa kontzeptuala: <http://bit.ly/1d9rv49>

SEO: Search Engine Optimization → Bilatzaileetan, web guneen ikusgarritasuna (posizioa hobetzeko) prozesua, era natural eta etiko batean (ordaindu gabe).

SEO-ari lotutako kontzeptuak:

1. Page Rank
2. Backlinks / Link Building
3. NoFollow
4. Long Tail
5. Spamdexing
6. Black Hat

1. PAGE RANK

